ATEJOKA 035
URRIA OCTUBRE OCTOBRE 2011

MAITE VILLAFRUELA

# "Enpresak bere proiektuan esku hartuko duten pertsona motibatuak behar ditu"


Maider Sillero

*Detalent enpresako gerentea dugu Maite Villafruela. Enpresa horretan pertsona, talde eta erakundeen gaitasunak identifikatzen eta garatzen espezializatutako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzte. Garapen hori lortzeko bideratzaile eta dinamizatzailetzat dute beren burua, eta esku hartzeko hiru bide erabiltzen dituzte: coaching-a, eraldaketa-tailerrak eta giza baliabideen aholkularitza. Gauzak hobeto egin daitezkeela uste du Maitek eta apustu horretan ipintzen duen ilusioa transmititu egiten du.*

**Zer da zehazki coaching-a eta zertan lagun diezaguke?**

Prestatzaile fisiko batek zuretzat egokienak izan daitezkeen errutina batzuen bidez sasoian egoten lagun diezazukeen bezala, coach batek zure adimen profesionala garatzen lagun diezazuke, garapen profesionaleko eta pertsonaleko prozesu sistematizatu baten bidez. Horretarako aurrez-aurreko hainbat bilera egiten dira (normalean 90 bat minutukoak izaten dira), eta, horietan, galdera ireki eta tresna batzuen bidez, zure gogoeta eta zalantzak sorrarazten, zure lehentasun profesional eta pertsonalak aurkitzen, benetako ekintza-plan bat diseinatzen (jomuga, helburu, hileroko mugarri eta betetze-adierazleak dituena) eta zure konpromisoak ohitura bihurtu arteko jarraipena egiten laguntzen dizu.

**Zuzendari asko ohituta daude negozioak kudeatzen, baina ez pertsonak. Zer aholku emango zenieke?**

Azken 30 urteetan egindako ikerketa gutzi-guztiek erakutsi dutenez, lotura zuzena dago lidergoaren –nola gidatzen duzun zeure jendea eta zeure taldea–, bezeroarentzako zerbitzuaren eta negozioaren emaitzen artean. XXI. mendeko enpresan, funtsezkoena ezagutza da: zer dakien egiten eta nola dakien egiten. Lehiakorra izateko, ezagutza hori kudeatzen jakin beharra dago, eta ezagutza hori erakundea osatzen duten pertsonengan dago. Enpresak bere proiektuan esku hartuko duten pertsona motibatuak behar ditu.

Zeregin eta eginkizunen araberako kudeaketaren kontrola eta segurtasuna oinarri dituen kulturatik erakundeko pertsonen arteko proiektu partekatuan oinarritutako kudeaketa ireki batera igarotzea da kontua. Sistema berriak kudeaketa-era eta barne-dinamika ezberdinak sorrarazten ditu, ohiko ereduetakoak ez bezalakoak. Horretarako, erakundeek baldintza egokiak sortu behar dituzte antolakuntzaren eta kulturaren aldetik, pertsonek beren gaitasun sortzaileak, harremanezkoak, kognitiboak, afektiboak... hedatzeko. Horrela, pertsonak motibatuta egongo dira enpresa-proiektu jakin batean parte hartzeko eta garatzeko.

**Zure esperientzian oinarrituta, esango zenuke enpresetan elkarlana ondo egiten dela?**

Nire ustez, ez gara ez eraginkorrak ez efizienteak elkarlanean. Kasu gehienetan, ez dago helburu partekatu ilusionagarri bat, ez dago amets, zentzu, ikuspegi bat. Hori hobetzeko, komunikazioa, konfiantza eta lidergoa elkarlanean landu behar genuke.

**Argi dago langile motibatu batek hobeto lan egiten duela, baina, langilea motibatzeko erantzukizuna norena da, nagusiarena ala norberarena?**

Dena emanda etortzea espero baduzu... txarto zoaz. Nork bere motibazioaren arduraduna izan behar du. Gure motibazioa sendotzeko ahalegin oro ondo hartua izango da, gozokia beti gozagarri. Hortaz, norbaiten nagusiak bagara, nik horren motibazioa sendotu egingo nuke, berarentzako erritmo, dosi eta osagai egokietan. "Elixirra" zein den jakiteko ezagutzen dudan bide bakarra zure taldekideekin luzaroan egotea da, ezagutu ditzazun eta ezagutu zaitzaten, garatzen laguntzeko, autonomia emateko, eskatzeko eta eskertzeko.

**Ekintzaileek profil jakinik dute? Zer behar da ekintzaile izateko?**

Esango nuke ekintzaile batek, lehenik eta behin, honako ezaugarri hauek izan behar dituela: norbere buruarekiko konfidantza, eta konfidantza hori ez dator gauetik goizera bizitzan, zure bizipenek eman edo kendu egiten dizute; egiten duzunarekiko grina, izan ere, egiten duzuna atsegin ez baduzu, ez zara zoriontsua izango; ameslaria izatea, zure negozioaren orainean eta geroan beti pentsatzea; nahi duzuna lortzeko planifikatzen jakitea eta planifikatzea; eta, nola ez, komunikatzen jakitea, zure bezeroengan konfidantza sorrarazteko.

Grina nahitaezko baldintza da, baina ez da nahikoa. Aparteko emaitzen aurretik aparteko ahaleginak izaten dira beti. Lorpen nabari baten atzean, lan handia eta lanerako gaitasuna izaten dira.

**Maider Sillero**

**Elkarrizketa osoa:** www.euskonews.com/595zbk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

Javier Retegui*

# ¿Espectadores del declive o promotores de futuro?

Cada mañana despertamos con sobresaltos: caída de las bolsas, medidas de ajuste, recortes presupuestarios, puesta en entredicho de países y continentes..., mientras que, en esa convulsión, se mueven inmensas masas financieras en busca de beneficios especulativos. Las autoridades, acuciadas por la necesidad, tratan de responder a las medidas que les imponen. La “dictadura financiera” exige garantías de rentabilidad y seguridad. Al menor recelo se incrementa el interés. Estamos ante una nueva versión de “usura”, que tras otorgar financiación con liberalidad, aprieta al deudor hasta límites insospechados. Las medidas de ajuste adoptadas por los gobiernos añaden dificultades a un maltrecho mercado de demanda, que soporta nuevas reducciones en una situación que se encuentra bajo mínimos. Ello conlleva menor actividad económica e incremento del desempleo.

La función de la actividad financiera consiste en intermediar entre los recursos excedentes de la sociedad y los proyectos generadores de valor que garanticen el bienestar social. Esa ha sido su función tradicional y por eso se llaman “intermediarios financieros”. En lugar de ello, el mundo financiero se ha orientado crecientemente al mercado especulativo, buscando beneficios en actividades que no generan valor. La función de “intermediación” ante la economía real se ha ido transformando en adquirir “protagonismo” en la inflada economía especulativa. El desplome de este entorno artificial ha puesto en entredicho la solvencia y equilibrio de entidades financieras. Su reequilibrio requiere medidas extraordinarias como fusiones y agrupaciones que las racionalicen, que vienen acompañadas por generosas ayudas de dinero público. A su vez, las entidades financieras reducen su presencia en las empresas generadoras de actividad económica y empleo, huyendo del riesgo en momentos de recesión y cuando se producen dificultades. El resultado es mayor desempleo y la muerte de muchas actividades reales, por asfixia financiera.

Es un panorama desolador de declive donde se van resolviendo los desajustes, de arriba abajo, dejando para el final, fuera del sistema, al inmenso “pozo negro” del desempleo. Éste no tiene quien le defienda, aguantando como puede a través de ayudas paliativas. Se trata de un panorama que nos lleva a la “muerte por inanición”.

El trabajo es el principal y único medio de generar valor y riqueza. El desempleo es un despilfarro social fruto de un gran fracaso de organización. No podemos resignarnos al “ajuste por reducción de actividad” esperando a que cambie la coyuntura o a que sean otros países los que generen economía. Es una actitud pasiva y de defensa de intereses, con el resultado de pobreza extrema para los parados.

Hay otro enfoque para reducir los desequilibrios: incrementar la actividad económica real, generadora de valor añadido y de empleo. Se trata de “crear riqueza” que garantice el empleo y permita un razonable nivel de vida. Es centrar la atención en la fase creativa más que en la defensiva o combinando ambas.

Al “ajuste destructivo” se puede oponer el “afán constructivo”, creando nueva actividad económica adaptada a las cambiantes condiciones sociales. Promover un clima social a favor de la creación de actividad real, nos tiene que llevar a iniciar un movimiento ilusionado de promoción, iniciativa e innovación.

Pero, ¿hay actividades que tengan encaje en este desolado panorama económico? Diría un sí rotundo. Desde la creación de actividades que respondan a nuevas demandas hasta la adaptación de nuestra industria tradicional a las exigencias de competitividad internacional, hay un gran recorrido que nos puede permitir generar riqueza.

El espíritu empresarial sigue vigente en la sociedad. La “función social del empresario” debe traducirse en el afloramiento de nuevas iniciativas. Es preciso echar mano de ese “cajón de ideas” que todo empresario tiene guardado para aflorarlo y ponerlo en circulación. Se trata de poner al trabajo como núcleo de nuestras preocupaciones.

Esta acción promotora debe ir acompañada con una coherente actividad financiera. El dinero tiene que servir para “irrigar” los nuevos intentos, hasta convertir en vergel el desolado panorama presente. Ningún proyecto empresarial coherente debe abortarse por limitaciones de financiación.

Es preciso huir de la paralizante sensación de impotencia. Nadie va a resolver nuestros problemas ni podemos esperar rescates externos. La vitalidad de un pueblo se mide por las repuestas ante las dificultades. Permanecer impasibles ante la lacra del desempleo es perder nuestra identidad, la que nos ha caracterizado en la historia.

*“O libreta o maleta”* apostillaba Arizmendiarrieta, para indicar que debíamos trabajar y ahorrar para invertir en crear actividad económica, en caso contrario estaríamos condenados a la emigración.

*Presidente de Honor de Eusko Ikaskuntza

## Paperetik sarera

www.euskomedia.org



Leopoldo Zugaza



Iñaki Zumalde Romero



Flickr

### Gure kulturaren belaunaldi heroikoa

Kultura hitza bitxi, itxuragabe eta are susmagarri gertatzen zen haiek kultura egiten hasi ziren denboran. Kirolak, “Sección Femenina” delakoaren folklorismoa, Alfonso Pasoren antzerkia eta beste gauzaren bat edo beste ziren kultura Espainian agintzen zuten jaunentzat. Ia-ia ez zegoen kultura erakunderik, ez publikorik ez pribaturik; hortaz, abiarazten zen guztia, goitik, mezenasgoaren emaitza zen, eta, oinarritik, amesgile gutxi batzuen borondatezko gogo beroaren ondorio.

Euskal kulturaren egitura mehatxatzen ari den aurrekontu murrizketen egungo egoeran, egoki baino egokiagoa da urte haiek gogora ekartzea eta protagonistak izan zirenek diotenari adi egotea. Leopoldo Zugaza, euskal kulturaren sustatzaile independentearen paradigmari egindako elkarrizketa interesgarri bat –bideoa eta testua– biltzen du *Euskonews*-ek 594. alean. Elkarrizketa horren osagarri gisa, hileko gomendioen artera, Leopoldo Zugaza Eusko Ikaskuntzako Ohorezko Bazkide izendatzea zela eta, RIEVen 2006an argitaraturiko azalpen biografikoa dakargu.

Iñaki Zumalde Romero, joan den hilabetean zendua, belaunaldi hartako beste kide garrantzitsu bat izan zen. Historialaria, Oñati jaioterriari buruzko obra garrantzitsu baten egilea, eta XX. mendeko literatura unibertsalaren irakurle eta dibulgatzaile bikaina, Eusko Ikaskuntzako 101 zenbakidun bazkidea kultura ekimen guztiz askotarikoetan inplikatu zen. Erakusgarri gisa, hirurogeiko urteen hasierako argazki bat berreskuratu dugu. Arantzazuko Santutegian harturiko argazki honetan, Oteizaren apostolurik gabe oraindik (1969an onartu baitzuten haiek jartzea), gogoratzen ari garen belaunadi hartako bederatzi ekintzaile nabarmen ageri dira, “Academia Errante” edo Akademia Ibiltari hartako kide zirenak: Ángel Cruz Jaca, Luis Pedro Peña Santiago, José Antonio Ayestarán, José Joaquín Montoro, Iñaki Zumalde, Elías Amézaga, Javier Urcola, Segues eta Luis Peña Basurto. Hori ikusteko sar zaitez www.euskomedia.org orrian Atejokatik.

Eta aurreko guztia jotzen gaituen ekonomia krisiaren harira datorrenez, ukitu positibo batez amaituko dugu gure aukera: Francisco Javier Iza-Goñola, Historia Ekonomikoan doktoreak “Las crisis económicas a lo largo de la Historia” artikulura dakarrena. Positiboa, artikulu interesgarri horrek gizakien historia krisi ziklikoen kolpez eratzen dela gogoratzen digun neurrian... agian ahaztua genuena.

Ez gara Zugaza, Zumalde eta abarren belaunaldiaren enborreko ezpalak, baina gutxienez eusteko ahaleginak egingo ditugu.

Ainhoa Kaiero Claver

# Stravinski, ¿compositor moderno, antimoderno o postmoderno?



Hoy por hoy la valoración de la obra musical de Stravinski aún sigue siendo controvertida. La visión negativa que en cierta época Adorno proyectara sobre su obra, se ha prolongado de forma un tanto maniquea y estereotipada en la valoración de algunos teóricos más contemporáneos. La obra del músico ruso ha sido vinculada, por un lado, con una expresión reaccionaria y anti-moderna que se niega a abandonar las formulas tonales del pasado. Por otro, autores como Fredric Jameson han asociado su música con otra concepción más lúdica y postmoderna que practica una manipulación frívola de estilos de otras épocas y contextos.

La relación estrecha que estos autores establecen entre la obra de Stravinski y las corrientes anti-modernas y postmodernas, es principalmente debida a una caracterización sumamente restringida de la música moderna. Ésta ha sido frecuentemente vinculada con el relato de un progreso histórico del lenguaje musical y con la creación de obras musicales autónomas y coherentes.

Dicha caracterización reproduce prácticamente la visión ortodoxa de la escuela "serial" de posguerra. Desde este punto de vista, toda producción que niegue estos principios y presente discontinuidades a nivel de la forma o reutilice materiales musicales del pasado, sería tildada de reaccionaria o caería en el "saco roto" de la postmodernidad.

Una comprensión más amplia de la modernidad musical, sin embargo, ofrece un panorama en el que también tienen cabida otros planteamientos alternativos, críticos con las tendencias totalitarias del serialismo integral. Los planteamientos de la etapa final de Adorno y su caracterización de una "música informal" entrarían de lleno en esa otra definición de la música moderna. Este modelo alternativo comprende así la creación de formas musicales fragmentarias, cerradas y a la vez abiertas, que mantienen y critican la autonomía de la obra al mismo tiempo. Esta modernidad también engloba la posibilidad de reutilizar lenguajes musicales del pasado, con el objeto de reelaborarlos críticamente y abrir su sentido a nuevas interpretaciones. Estos planteamientos deben diferenciarse de las estrategias deconstructivas de la postmodernidad, en las que sí que se produce una disolución efectiva tanto de la forma y concepto de la obra artística (a través de la extrema repetición o del puro azar), como de un sentido fundamental vehiculado por el lenguaje musical de la tradición.

La producción musical de Stravinski caería claramente del lado de esta modernidad alternativa. Esta interpretación, basada en los análisis más pormenorizados realizados por autores como Jonathan Cross, desmiente radicalmente la caracterización postmoderna que realizara Adorno sobre su música. Adorno define la obra del músico como un montaje constituido por una repetición mecánica y una yuxtaposición abrupta y disociada de motivos. Su etapa neoclásica, la contempla a su vez como una manipulación externa del lenguaje musical pasado al que se vacía de todo contenido. En los análisis de Cross, por el contrario, los procedimientos de Stravinski se equiparan con una forma fragmentaria, es decir, con un montaje rítmico en el que los motivos concretos y contrastantes se encuentran mediados, aunque sin llegar a una totalización formal completa que anule su diferencia. Al igual que en el cubismo, Stravinski descompone un modelo de referencia (la tonalidad) en sus elementos más básicos; luego varía y desarrolla estos motivos a través de un montaje rítmico que rearticula una nueva unidad donde el lenguaje de referencia se afirma y desmiente al mismo tiempo. Su etapa Neoclásica se caracteriza en este mismo sentido: como una estrategia irónica que contradice el modelo, al mismo tiempo que lo conserva, y produce así un enriquecimiento del sentido al añadir una nueva perspectiva al significado tonal de referencia.

KAIERO CLAVER, Ainhoa: "**Stravinski: ¿compositor moderno, antimoderno o postmoderno?**". – En: *Oihenart. Musiker. Cuadernos de Música, 16*. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2008. – pp. 35-66.

# Gertatu zen



Jose de Orueta



ESTATUTO
GENERAL
DEL
ESTADO VASCO



La Universidad Vasca

Esta mañana en el exprés de las ocho y media han salido para Zumárraga el vicepresidente de la Comisión Provincial don José María Unda, el diputado don Miguel Fernández Dans y el oficial letrado don

## 1921eko udazkena: zifrez eta letrez

## Otoño 1921: Sobre cifras y letras

## Automne 1921: A propos de chiffres et de lettres

Jose de Orueta bizkaitar bazkide, politikari, idazle eta ekonomistak Herrialde osorako Estatistika Zerbitzu batzuk antolatzeko proiektu bat aurkeztu zuen Batzorde Iraunkorrean, Aldundi guztien artean gauzatzekoa. Oruetaren plan handinahi hark Batzordearen onespena bildu zuen, eta lau Aldundiei helarazteko modua egin zuen.

Jose de Orueta, 1919an Estatutu bat idatzi behar zuen Parlamentuz kanpoko Batzordekoa izan zen eta parte hartu zuen 1930-1931 bitartean Euskal Estatuaren Estatutu Nagusia sortuko zuen Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordekidea izan zen. Nafarroa erretiratu ondoren, 1933ko azaroaren 5ean plebiszitatu zen estatutu proiektuaren idazketan ere parte hartu zuen.

**Universidad Vasca**

Por Real Decreto del 9 de septiembre de 1921, se concedió autonomía a las once universidades españolas. Por tanto, a partir de entonces cada una de ellas se regiría por sus correspondientes estatutos. En el preámbulo de dicho Decreto se dejaba a la libre iniciativa la organización de centros de enseñanza superiores de acuerdo con la acción social y cultural necesaria para la vida de las distintas regiones.

Aquel mismo otoño, Eusko Ikaskuntza editorializaba en su Boletín a propósito de esto: "Esta Sociedad viene reclamando desde su fundación y en ocasiones bien solemnes como la del Congreso de Pamplona en que fue estudiado detalladamente, el establecimiento de la Universidad Vasca". Viendo que las nuevas circunstancias eran particularmente propicias, la Sociedad promovió la unión entre las cuatro Diputaciones en torno a "esta gran empresa, ante la que cualquier interés particularista resultaría mezquino".

**Pensions**

Il y a 90 ans, deux personnes faisaient partie du personnel d'Eusko Ikaskuntza: Fausto Arocena, comme employé de secrétariat, et José Arana en qualité de coursier. Sur la proposition du Comité Exécutif, le Conseil Permanent a convenu de constituer, à la Caisse d'Epargne de Guipúzcoa, des pensions viagères payables à partir des 65 ans des titulaires. Pour ce faire, il sera imposé annuellement 200 pesetas sur le livret d'épargne de Arocena et 62 sur celui de Arana.

# Ikaskuntza zaleak



**Gonzalo Duo (socio nº 1.914)** Bilbao, 1946. Cuando las “conmociones” del 68 en la Universidad de Deusto promovió Euskal Kultur Mintegia (EKM), organizando los cursos de euskara y alfabetización y, entre 1972 y 1974, los estudios universitarios de verano en euskara “Udako Ikastaro Unibertsitaria, UIU”. Ha publicado más de un centenar de trabajos de investigación sobre cultura vasca urbana a través de la Cofradía de Mareantes de Plencia, las escuelas de Náutica y aspectos de etnografía y antropología de Plentzia, Lekeitio y Bilbao. Durante los últimos cuatro años ha organizado tres experiencias de recuperación de las antiguas rutas de cabotaje del hierro de Somorrostro por la costa vasca y cuatro Jornadas de Historia de Plentzia.



**José Mª Izaga Reiner (socio nº 3.469)** Deba, 1949. Ingeniero Industrial, ha desarrollado su actividad profesional en el sector metalúrgico. Investigador sobre los oficios tradicionales, la historia de las técnicas de trabajo de carácter preindustrial e industrial y sobre ingenios hidráulicos, el resultado de su labor se ha concretado en más de diez publicaciones, en colaboración con Carmelo Urdangarín, así como en artículos y comunicaciones a congresos y foros internacionales.
El 2004 recibió el Premio Internacional García-Diego a la Investigación de la Historia de la Técnica, por el estudio titulado *El Real Ingenio de la Moneda de Segovia, maravilla tecnológica del siglo XVI*, realizado en colaboración con otros dos autores.



**Isusko Vivas Ziarrusta (3.832 zk.dun bazkidea)** Arte Ederrak, Hirigintza eta Antropologia ikasi ditu Euskal Herriko eta Espainiar estatuko unibertsitateetan. Eusko Ikaskuntzako Lurraldearen Antolaketa eta Kudeaketa gradu-ondoko ikasketak burutu ostean, hiri-espazioaren egituraketa sinbolikoari dagozkion ikergaietan murgilduta dabil azken boladan, modernitate berantiarraren garaiko hiri-paisaiaren eraldakuntzan parte hartzen duten elementu adierazgarriak artearen zein kulturaren ikuspuntutik aztertuz; beti ere, kolektibitate baten partaide garen neurrian ‘hiritar kezkatuaren’ perspektiba eta aldarrikapena kontuan izanda. Eusko Ikaskuntzako bazkide, ikerketako laguntzen bitartez itsas bazterreko euskal hiriei buruzko lana prestatzen dihardu.



**Izarra Martínez Ruiz (6.421 zk.dun bazkidea)** Derion 1986an jaioa, EHUn Politika eta Administrazio Zientzian Lizentziaduna eta ikertzailea da. Lankide gisa ari da Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailak sustaturiko Datorkigunea foroan. Gaur egun doktore tesia egiten ari da EHUn berean, udal mailako politika moldatzen duen eliteari buruz, zeharkako genero ikuspegitik. Gainera, prestakuntza zabala du toki garapen agente gisa. Kontuan izanik toki maila interes handikotzat jotzen duela, behin doktoregoa amaiturik horretan jarduteko asmoa du, era horretara berdintasunaren eremuan gizartearen garapenari lagunduko diolakoan.

# Argitalpenak



## Euskararen legeak hogeita bost urte Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa

Egilea: Mikel Zalbide
Bilbo: Euskaltzaindia, 2010
234 or. ; 24 cm.
isbn: 978-84-95438-67-6

Mikel Zalbide euskaltzain osoak paratu eta Euskaltzaindiak argitaratu duen liburu honen abiapuntua 2007an Euskaltzaindiak egin zituen Jagon Jardunaldietan dago. Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legea 25 urte betetzen zituenez, legeak mende-laurdenean izandako bilakaeraz gogoeta saioa egin zen jardunaldi horietan. Alde askotatik jorratu zen gaia: administrazioa, kulturgintza, komunikabideak... Mikel Zalbide euskaltzain osoak parte hartu zuen jardunaldietan, eta hezkuntza alorreko bilakaeraz balioespen teknikoa egin zuen. Liburu hau da orduko emaitza. Lana perspektiba soziolinguistikotik idatzia dago, baina beste hainbat alor ere kontuan hartzen ditu.



## Estudio histórico del puerto de Hondarribia

Autora: Ana María Benito Domínguez
Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, 2010
445 p. : il. ; 30 cm.
isbn: 978-84-457-3138-3

En 1997 se inició la publicación de la colección “Estudios Históricos de Puertos”, patrocinada por el Gobierno Vasco en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi. La serie se interrumpió en 2001, tras editarse cinco tomos, y en 2008 se retomó con el estudio sobre el puerto de Lekeitio, al que se suma ahora este tomo sobre Hondarribia obra de Ana María Benito Domínguez. Se trata de una profunda investigación estructurada en cuatro extensos temas: el medio natural como condicionante de la historia, las obras de infraestructura portuaria, el desarrollo de la actividad pesquera y la actividad comercial. Un importante aparato iconográfico y diversas tablas y apéndices documentales acompañan la edición de esta monumental obra.



## Euskararen historia soziala (EHS). Argibide bibliografikoak (lehen emanaldia)

Egilea: Joseba Intxausti
Bilbo: Euskaltzaindia, 2011
496 or. ; 24 cm.
isbn: 978-84-95438-68-3

Euskaltzaindiaren Joanes Etxeberri Bildumako lehen alea da Joseba Intxaustik egindako *Euskararen Historia Soziala. Argibide bibliografikoak* lana. Oraingoan, lehena, paperean inprimatu du Euskaltzaindiak, baina hurrengoak Internet bidez eskaini, zuzendu eta osatuko dituzte. Euskararen Historia Soziala Euskaltzaindiak duela hiru urte abian jarritako egitasmoa da, hizkuntzaren historiaren bidez, bere argi-ilunak azaltzeko. Orotara, 4.440 erreferentzia jasotzen ditu liburuak: 1.657 liburu, 1.955 artikulu eta 828 hitzaldi edo liburu-kapitulu. Euskararen iragan soziala ezagutu eta arakatu nahi dutenentzat pentsatuta dago argitalpena, eta bereziki ikertzaileentzat egin da bilketa hau.



## Veterinaria popular en el País Vasco

Autor: Ángel Goicoetxea
Getxo: Emakunde, 2011
197 p. : il ; 21 cm.
Isbn: 978-84-9946-104-5

El presente trabajo tiene el propósito de mostrar la existencia, en el País Vasco, de un amplio y variado repertorio de antiguas prácticas destinadas a proteger el ganado y curar las enfermedades de los animales, unas veces de tipo creencial, ritual o mágico, y otras de carácter empírico. Por otro lado, se compara esta veterinaria creencial y empírica con prácticas de similares características de otros lugares, incluyendo algunos países europeos. Ángel Goicoetxea (1937) es médico y farmacéutico. En 1984 se doctoró en la Universidad de Salamanca y ha simultaneado el ejercicio médico-hospitalario con la docencia en la Facultad de Medicina de la Universidad del País Vasco.

ATEJOKA
035
URRIA
OCTUBRE
OCTOBRE
2011

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Argitalpen Idazkaria**
Eva Nieto

**Argazkiak**
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedia Fundazioa, eta www.flickr.com/photos/psyberartist/3571114375

**Harpidetzak**
Atejoka etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00- 13:00

**Horario**
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de 15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00 et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokonposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga